

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2285

411/2023 EBAZPENA, apirilaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorreko 2023ko martxoko zikloaren destinoen eskaintza, A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Psikiatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorra egiteko deialdia egin zen A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Psikiatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1. apartatuan xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Psikiatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan data hauek hartu dira erreferentziazat: 2023ko martxoaren 1a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko, eta 2023ko ekainaren 6a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

Lehiakideek eskabidea aldatu ahaliko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren araututakoari jarraiki, 2023ko ekainaren 6ra arte, 2023ko martxoko ziklo honi dagokionez.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2023ko martxoko ziklo honetan, 2023ko ekainaren 6ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldez aurretik adierazitakoaren arabera.

2023ko martxoko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoren bat badute 2023ko ekainaren 6a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzekoa azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2023ko maiatzaren 16a, asteartea

ERANSKINA
DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA
LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Arab. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Eguneko Arreta / Bitarteko Egiturak / EGUNEKO OSPITALEA - PSIKIATRIA-Vitoria-Gasteiz / Komunitateko Errehabilitazio Z-Vitoria-Gasteiz / Arreta - Helduak-Eguneko Arreta / Errehabilitazioa-Eguneko Arreta / Errehabilitazioa / Goizez-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Arab. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitate Arreta eta Ospitaleko Arreta / Arabako Osasun Mentala-Vitoria-Gasteiz / Erreten unitatea-Erreten unitatea-Unitatea / Goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Arab. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Salburuko OMZ-Vitoria-Gasteiz / Zabalganeko OMZ-Vitoria-Gasteiz / Lezako Ospitalea-Laguardia / Lautada-Aguraingo OMZ-Agurain/Salvatierra / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea / Goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
2	Arab. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Zabalganeko OMZ-Vitoria-Gasteiz / Salburuko OMZ-Vitoria-Gasteiz / Lezako Ospitalea-Laguardia / Lautada-Aguraingo OMZ-Agurain/Salvatierra / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea / Goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Arab. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Zaballako OMZ Espetxea-Iruña Oka/Iruña de Oca / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Espetxea-Osasun Mentaleko Unitatea / Goizez-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Arab. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Zaballako OMZ Espetxea-Iruña Oka/Iruña de Oca / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Espetxea-Osasun Mentaleko Unitatea / Goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Klinikoak-Psikiatria-Psikiatria / 2 Txanda-Arratsalde eta agenda irekia goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Klinikoak-Psikiatria-Psikiatria / 2 Txanda-Arratsalde eta agenda irekia goizez-Guardiekin / 2HE-Data igarota
2	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Klinikoak-Psikiatria-Psikiatria / 2 Txanda-Arratsalde eta agenda irekia goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Galdakao-Ursulo Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Psikiatria-Psikiatria / Goizez-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Galdakao-Ursulo Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Psikiatria-Psikiatria / Goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Psikiatria-Psikiatria / Goizez-Guardiekin / 2HE-Data igarota

2023ko maiatzaren 16a, asteartea

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
3	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoa-Psikiatria-Psikiatria / Goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Eguneko Arreta / Bitarteko Egiturak / BOMSeKO Administrazioa-Bilbao / Arreta - Helduak-Egoitza txikiak-Egoitza txikiak / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Eguneko Arreta / Bitarteko Egiturak / Garamendiko Eguneko Ospitalea-Bilbao / Txurdirnagako Eguneko Ospitalea-Bilbao / Julian Ajuiriagerra Eguneko Osp-Bilbao / Arreta - Helduak-Eguneko Arreta-Eguneko Arreta / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Algotako OMZ-Getxo / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Adikzioak-Osasun Mentaleko Unitatea - Adikzioak / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Julian Ajuiriagerra OMZ - Adikz-Bilbao / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Adikzioak-Osasun Mentaleko Unitatea - Adikzioak / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Julian Ajuiriagerra OMZ-Bilbao / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Helduak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Portugaleteko OMZ-Portugalete / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitatea - Adikzioak-Osasun Mentaleko Unitatea - Adikzioak / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
2	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Ospitaleko Arreta / Zaldibarko Ospitalea-Zaldibar / Zerbitzu Klinikoa-Psikiatria-Psikiatria / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin / 2HE-Data igarota
1	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Ospitaleko Arreta / Zaldibarko Ospitalea-Zaldibar / Zerbitzu Klinikoa-Psikiatria-Psikiatria / Goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikoa-Psikiatria-Psikiatria / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
3	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikoa-Psikiatria-Psikiatria / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
3	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoa-Psikiatria-Psikiatria / Goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoa-Psikiatria-Psikiatria / Goizez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Gipuz. Os. Mentaleko Sar.	Osasun Mentaleko Sarea-Eguneko Arreta / Bitarteko Egiturak / Donostiako EOKo Erreabilitazio-Donostia/San Sebastián / Irungo OMZ-Irun / Errenterriako OMZ-Errenteria / TOLOSAKO OMZ-Tolosa / Arreta - Helduak-Tratamendu Aseritiko Komunitarioko Unitat-Tratamendu Aseritiko Komunitarioko Unitat / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Gipuz. Os. Mentaleko Sar.	Osasun Mentaleko Sarea-Eguneko Arreta / Bitarteko Egiturak / Eibariko OMZ-Eibar / Arrasateko OMZ-Arrasate/Mondragón / Zarauzko OMZ-Zarauz / Zumarragako OMZ-Zumarraga / Arreta - Helduak-Tratamendu Aseritiko Komunitarioko Unitat-Tratamendu Aseritiko Komunitarioko Unitat / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Gipuz. Os. Mentaleko Sar.	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Donostia-Antiguoko OMZ-Donostia/San Sebastián / Errenterriako OMZ-Errenteria / Arreta - Helduak-Osasun Mentaleko Unitat-Helduak/Adikzioak-Osasun Mentaleko Unitat-Helduak/Adikzioak / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-igaro gabeko data (2023-12-03)

2023ko maiatzaren 16a, asteartea

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Gipuz. Os. Mentaleko Sar.	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Irungo OMZ-Irun / Arreta - Helduak-Osasun Mentalek Unitat-Helduak/Adikzioak-Osasun Mentalek Unitat-Helduak/Adikzioak / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Gipuz. Os. Mentaleko Sar.	Osasun Mentaleko Sarea-Komunitateko/Anbulatorioko Arreta / Zarauzko OMZ-Zarauz / Zarauzko OMZ-Azpeitia / Arreta - Helduak-Osasun Mentalek Unitat-Helduak/Adikzioak-Osasun Mentalek Unitat-Helduak/Adikzioak / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe